

BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

1015

EBAZPENA, 2022ko otsailaren 18koa, Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Datu Pertsonalak Babesteko Legearen aurreproiektua.

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2022ko urtarrilaren 31ko Aginduaren bidez, aldez aurreko onarpena eman zitzaion Datu Pertsonalak Babesteko Legearen aurreproiektuari.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, herritarren eskubide eta bidezko interesei eragiten dieten xedapen orokorrek entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute. Era berean, xedapenen izaerak hala eskatzen badu, jendaurrean jarri beharko dira.

Azaldutakoagatik, eta Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 6/2021 Dekretuaren 11.2.a) artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Datu Pertsonalak Babesteko Legearen aurreproiektua jendaurrean jartzea, hogeitun egun balioduneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Bigarrena.– Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, agindu-proiektuaren testua eskuragarri egongo da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa>), baita euskal araudiaren atarian (Legegunea) ere (<https://www.legegunea.euskadi.eus>).

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsailaren 18a.

Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendaria,
GOIATZ AIZPURU LIZARRALDE.